

ANGEL OIARBIDE, 2015-11-21

Azken bi hilabeteotan Gure Esku Dago herri dinamikako kideon artean elkarbanatu eta aberastutako bide-orria onartu eta aurkeztu dugu gaur hemen. Gaurtik erabakira eramango gaituen bidea. Ambizioa, determinazioa eta borondatea. **Gure Esku Dagok bere erronka nagusiari heldu behar dio, heldu diezaiozun sortu gintuen erronkari, erabakitzeko eskubidea gauzatu dezagun!**

Ardatza bakarra da, sorrerako berbera, denaren gainetik, ezer baino lehen, herritarren borondateak behar du gidatu herri honen etorkizuna.

### **2014-2015**

2014ko giza katea jarrera baten adierazpidea izan zen. Erabaki nahiaren printza horrek sortu zuen herriz herriko ilusioaren adierazpide: GURE ESKU DAGO, guk behar dugu erabaki, herritarron garaia da.

Erabakia eraiki egin behar da, ezberdinen artean, elkarlanean, bakoitzak beretik helduz erronka komunari. Oinarri hortatik abiatuta hautetsontziei begira jarri ginen iaz, pertsona adina borondate jaso zituzten mila koloreko hautetsontzi horiei begira, erabakiari begira.

Durango eta Iruñea borondatez josi zituzten esku horiek eurek, denon borondatearen arabera eraikitako hautetsontzi horiek marraztu zituzten esku horiek, esku horiek erabaki egin behar dute. Erabaki egin behar dugu.

### **Adierazpenetatik Itunera**

Nola, ordea? Zer? Noiz? Erabakia gauza dadin galdera horiei erantzun behar diegu, korapilo horiek askatu behar ditugu erabakiko badugu. Erraza da 'Gure esku dago' esatea, erabakiaren aroa iragartzea... esango du baten batek. Badakigu ez dela erraza marraztu dugun erronka, baina gu gure esku dagoen guztia egitera goaz gaurko aldarria bihar errealitate bilakatu dadin.

Topagunea da erabakitzeko eskubidea, eta epe motzean herri honetan erabakia gauza dadin, topagune hori sakondu eta mamitu behar dugu tokian toki. Tokian tokiko **Erabakitzeko Adierazpenak** sustatuko ditugu marraztu dugun bide orri honen lehen geltoki gisa. Tokian tokiko errealitatearen arabekoak beharko dute izan hauek; zer, noiz, nola galderei erantzuteko tokian tokiko adostasunaren neurrikoak. Erabakitzen hasteko modua dira adierazpen horiek, sutan jartzean probatzen baita eltzea.

Nahikoa adostasun lortzen duten eremutan erabakiari bide emango diote Adierazpen horiek, horren adibide Goierri, Dima eta Ispaster... oraingoz, beste hainbat lekutan ere antzeko bideari ekiteko nahikoa adostasun eraikitzen ari baita, honezkero. Izan ere **erabakitzen hasi eta erabakitzen ikasi** egin behar dugu, herritarrok gure etorkizunaren jabe

izango bagara.

eta Adierazpen horien denen konfluentzia, topagunea izango da **Erabakiaren Ituna**. Badakigu adostasun horren eraikuntza ez dela brometarako kontua, ezagun ditugu gaur gaurkoz dauden ezberdintasunak, ikuspegi ezberdinak, helburu kontrajarriak...

Baina, **erabakiaren aroa** da hau, ez guk hala nahi dugulako soilik, hurrengo biurtekoan herri honen antolaketa instituzionala erabakiko duten mugarriak sortuko direlako ere bai. Uste dugu, herritarrok batuta heldu behar diogula erronka horri eta horregatik, **Gure Esku Dagok bere burua artekari gisa** aurkezten du gaur bide orri hau eskuan. Adostasun eremu hori sortzeko bitartekari gisa. Adierazpenen eraikuntzan lehenbizi, eta Itunaren osaketan gero, artekaritza hori indartu eta herritar orok bere egiteko moduko bidea da adostera goazena. Muturreraino findua formetan, anbizioz betea helburuan.

2018 dio 'Eskura'k. Beno, izan daiteke 2018, edo 2017, edo 2019... Ez dugu data lehiarik nahi. Ez da totem bat. Lanerako erreferentzia bat da, adostasunerako proposamen bat. Adierazpenak, Ituna, Erabakia. Hori da hurrengo epe laburrerako mahai gainean jartzen dugun lan erreminta, lanerako erreferentzia. Tokian tokiko adierazpenen adostasun eta inklusiorako gaitasunak lehenbizi eta Erabakiaren Itun horren osaketara batzea lortzen dugun adostasunak gero zehaztuko dute bide orri zehatza. Dioguna da, gure esku dagoen guztia egitera goazela, gure erronka behinenari, behin-betikoari heldu diogula, erabakitzeko eskubidea gauzatzera goazela eta horretarako bidelagun denak, den-denak behar ditugula. Zuzenago, denok behar dugula bidelagun izan erabakia elkarbanatuko badugu.

Beraz, **heldu diezaiogun sortu gintuen erronkari. Gauzatu dezagun erabakitzeko eskubidea**. Badakizue, GURE ESKU DAGO!